LARRABETZU UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Erref. Zkia.- Esp. Zkia.- EE-2026-00180
B052-2026-00007

LARRABETZUKO UDAL POLIKIROLDEGIRAKO EKIPO KARDIOBASKULARREN HORNIDURA, IRIZPIDE ANITZEKO PROZEDURA IREKI ARRUNTA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN PLEGUAREN KARATULA

A.- Kontratuaren objektua.

Kontratu honen xedea Larrabetzuko Udal Kiroldegia ekipo kardiobaskularrez hornitzeko behar den ekipamendua alokatzea eta mantentzea da.

Gainera, enpresa esleipendunak bere gain hartuko du instalazioa, hondatutako piezak birjartzea, eskulana eta mantentze-lanak egitea, betiere makinen funtzionamendu egokia ziurtatuz (baldintza teknikoen agirian zehazten den kirol-materialaren zerrendaren arabera) eta kontratisten proposamenen arabera.

Hornidura egiteko, administrazio-klausula zehatzen agiri honetan, baldintza teknikoen agirian eta esleipendun suertatzen denak egindako eskaintzan xedatutakoa bete beharko da, eta eskaintza horrek ezin izango ditu inola ere murriztu agiri honetan eta eranskinetan adierazitako betebeharrak. Aipatutako hiru dokumentuek kontratu-izaera dute.

Kontratuari kontratuaren CPV 37.400000-2 kodea dagokio ("artikuluak eta kirol-materiala"), Europako Batzordearen CPV nomenklaturaren arabera (Batzordearen 2007ko azaroaren 28ko 213/2008 (EE) Erregelamenduan jasoa). Erregelamendu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 (EE) Erregelamendua, kontratu publikoen hiztegi komuna (CPV) onartzen duena, eta 2004/2004 Zuzentarauak aldatzen ditu.

B.- Zerbitzu sustatzailea

Larrabetzuko Udala.

C.- Kontratazio organoa eta zuzendaritza.

Alkatetza

Askatasuna Enparantza, 1 48195 Larrabetzu (BIZKAIA)

Kontratazio mahaiaren osaketa.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Presidentea	Amaia Lekue Mezo, udaleko Alkate-Presidentea.
Bokala 1	Nerea Uriarte Iza, Udaleko funtzionarioa
Bokala 2	Ortzi de la Quintana Ibáñez, udaleko Idazkari Kontu-hartzailea.
Bokala 3	Izaskun Etxebarria Vadillo, arkitekto teknikoa, udaleko funtzionarioa.
Idazkaritza	Ane Ituiño Pérez, AOT udaleko funtzionarioa

D.- Lizitazio-oinarriaren aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia.

- Lizitazio-oinarriaren aurrekontua (SPKL 100 art.)

  Kontratuaren lizitazio-oinarriaren aurrekontua **BERROGEITA HAMABI MILA EURO, BEZ BARNE (52.000,00 €)** da. Emaitza hori hamaika mila euro urteko (13.000,00 €/urtea) LAU (4) urteko kuotaren zenbatekoa biderkatu ondoren lortzen da. Zenbateko horretan BEZa sartuta dago eta horrela banatzen da:

Hilabeteko prezioa	895,32€
Urteko prezioa	10.743,80€
4 urteko prezioa	42.975,21€
BEZ 21%	9.024,79€
GUZTIRA LOA	52.000,00 EURO

- Kontratuaren balio zenbatetsia (SPKL 101 art.)

  Kontratuaren balio zenbatetsia, egon litezkeen luzapen eta aldaketak kontutan hartut eta BEZ kenduta, **BERROGEITA HAMAIRU MILA ZAZPIREHUN ETA HEMERETZI EURO ETA ZENTIMO BAT (53.719,01 €)** da. Zenbateko hori horrela banatzen da:

Hilabeteko prezioa	895,32€
Urteko prezioa	10.743,80€
4 urteko prezioa	42.975,21 €
Urte bateko luzapena	10.743,80 €
KBZ GUZTIRA	53.719,01 €

Proposamen ekonomikoa BAZPen II. Eranskinean zehaztutakoaren arabera aurkeztuko da. Proposamen ekonomikoak eurotan egingo dira eta prezioak bi dezimalekin adieraziko

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

dira. Proposamenean zehaztu beharko da, partida independente bezala, jasan beharko duen Balio Erantsiaren Zergaren zenbatekoa.

E.- Kontsignazioa aurrekontua

Kontratu honek nahikoa diru-izendapen du Larrabetzuko Udalaren aurrekontu orokorreko 342.20400 partidan.

Era berean, Kontratazio organoak hitzematen du nahikoa kreditu erreserbatuko duela lizitazio honen bitartez konprometitutako etorkizuneko ekitaldietarako.

Hornidura kontratu honen finantziazioaren %100 udalekoa izango da.

F.- Urteak

2026 urtea
2027 urtea
2028 urtea
2029 urtea

G.- Izapidetza

Arrunta

H.- Prozedura eta esleipen forma

Irizpide anitzeko prozedura ireki arrunta

I.- Esleipen elektronikoko sistema

Derrigorrezko erabilera

J.- Esleipen irizpideak

Kontratuaren esleipena egiteko oinarria izango diren irizpideen balorazioa hurrengoa da, garrantziaren arabera eta eman zaien ponderazioaren arabera sailkatuak:

1. Era automatikoan zenbatu daitezkeen irizpideak: 60 puntu arte.

- Eskaintza ekonomikoa: 45 puntu..

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Eskaintza ekonomikoa atxikitutako formularen arabera baloratuko da eta gehienezko puntuazioa (45puntu) eskaintza ekonomiko baxuenari eta gutxieneko puntuazioa (0 puntu) esleipen aurrekontuari emango dizkie.

P.L: Esleipen aurrekontua
O.E.M.B: Eskaintza ekonomiko txikiena
O.E.x: X enpresaren eskaintza ekonomikoa
V.max: Gehienezko balorazioa
Vx: X eskaintzaren balorazioa

$$Vx = V.\ max\ x\ [(PL - Oex)/(PL - OEMB)]$$

Neurriz kanpokoak izango dira esleipen oinarriaren prezioaren 15 unitate portzentualen baino jaitsiera handiagoa dutenak.

Aurkezteko modua: administrazio-klausula partikularren agiriaren II. eranskineko ereduaren arabera.

- Entregatutako ekipoen garantia epea handitzea: 5 puntu

Legeak ezarritako 2 urteko gutxieneko bermeari 0 puntu emango zaizkio, eta 0,5 puntu bermea luzatzen den 4 hilabete bakoitzeko.

- Koloretako displaya, esfortzu-adierazlearekin: 5 puntu

Koloretako bizi-ahaleginaren adierazle bat duten taldeei 5 puntu emango zaizkie, display-aren kolorea aldatzeko sistema baten bidez. Sistema hori erabiltzailearen intentsitate- edo esfortzu-mailari lotuta egongo da, eta entrenamenduan zehar esfortzu-maila berehala ezagutzeko aukera emango du.

- Konektibitatea: 5 puntu.

Bluetooth eta ANT+ teknologien bidez hari gabeko konektibitatea duten ekipoei 5 puntu emango zaizkie, kanpoko sentsoreekin, entrenamendu-osagarriekin eta entrenamendu konektatuko inguruneetan erabili ohi diren kirol-aplikazioekin integratu ahal izateko, hala nola Bkool, Strava, UPtivo edo fitness-aren sektorean erabiltzen diren antzekoak.

Aurkezteko modua: lizitatzaileak erantzukizunpeko deklarazio bat egin beharko du, non adieraziko duen zein garantia, zein motatako displaya eta zein konektibitate mota dituzten eskainitako ekipoek.

Enpresa lizitatzaileen artean **berdinketa emanez gero**, lehentasuna izango dute eskaintza egiteko unean hurrengo egoeretan dauden enpresen proposamenak (lehentasuneko hurrenkeran)

a) Ezgaitasun egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa dutenak edota gizarte-bazterkeria arriskuan egon daitezkeen ehuneko kopuru handiagoa duten enpresak; eta berdintasun egoeran, finkoak diren langile ez-gaitu kopuru handiagoa duenak.

b) Enpresa horietan aldi baterako kontratu kopuru txikiagoa duenak.

c) Enpresa horietako bakoitzeko plantillan emakume portzentaje kopuru handiagoa dutenak.

d) Aurreko irizpideak aplikatu ondoren, berdinketa egoerak jarraituko balu, zozketa egingo da.

2. Era automatikoan zenbatu ezin diren irizpideak: **40 puntu** arte.

1- Egungo aretoa berriro banatzeko proposamena, lehiaketa honetako taldeak barne (10 puntu, gehienez) agiri teknikoaren araberako ekipo kardiobaskularren ezaugarriak eta bertan jasotako oinarrizko prestazioak berdindu edo hobetzen dituztenak, diseinuan, motorrean, neurrietan, kontsolako informazioan eta abarretan oinarrituta.
2- kontsola intuitiboa, pantailan digitu extra-handiak dituen informazioarekin, 10 puntu arte errazago ikusteko.
3.- Mantentze-plana, bisitak, ekintzen irismena eta bermearen estaldura zehazten dituena, 10 puntura arte.
4- Indoor-zikloko ekipoen ezaugarriak, inertzia-diskoari, diseinuari, Q faktoreari, eskulekuko laguntza-sistema hidraulikoari eta abarri dagokienez, 10 puntura arte.

ERA AUTOMATIKOAN ZENBATU EZINEZKO IRIZPIDEEN BALORAZIOAN LORTU BEHARREKO GUTXIENEZKO PUNTUAK

SPKLren 146.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, balorazio orokorrean onartuak izateko, pertsona eta enpresa lizitatzaileei eskatu egingo zaie era automatikoan edo formula bidez zenbatu ezinezko irizpideetan gutxieneko puntuazioa eskuratzea; eta beraz, Kontratazio mahaiak ez ditu kontutan hartuko irizpide subjektiboen atalean gutxienez 20 puntu lortzen ez dituen pertsona edo enpresa lizitatzaileen proposamenak.

K. Behin-behineko bermea

Ez d eskatuko.

L. Behin-betiko bermea

Esleipen zenbatekoaren %5, BEZ kenduta.

LL. Prezioen berrikuskapena

Ez dagokio

M. Aldaerak baimentzea

Ez dagokio

N. Betearazpen epea/entrega

Kontratuaren betearazpen epea lau urtekoa (48 hilabete) izango da, kontratua formalizatzen den hurrengo lan-egunetik aurrera zenbatuta.

Ñ. Luzapen aukera

Urte bateko luzapen bat

O. Betearazpen lekua

Larrabetzuko udal-kiroldegia.

P. Bermea eta jasotzeko epea.

Bemeraren epea 2 urtekoa izango da, haren jasotze formaletik aurrera.

Q. Proposamenak aurkezteko epea

Epea 15 egun naturalekoa da, esleitze iragarkia kontratazioaren profilean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

R. Proposamenak aurkezteko lekua.

Larrabetzuko Udaleko lizitazio plataforma.

Proposamenak aurkezteko forma. Hiru gutunazal elektroniko aurkeztuko dira.

A GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Erantzukizunpeko deklarazioa –aurretiazko irizpideak-.
B GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Automatikoki baloratu ezin daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa –aurretiazko ebaluaketa-.
C GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Automatikoki baloratu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa –ondorengo ebaluaketa-.

Gutun-azal bakoitzaren barnean adierazi beharko da, orrialde independente batean, dauden dokumentuen zenbakizko erlazio bat (aurkibidea)

Proposamenen edukia
A GUTUN-AZALA. ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA. Gutun-azal honek hurrengo dokumentazioa jasoko du:

1. BAZPen I. eranskinarekin bat eginez kontratatzeko baldintzak bete egiten direnaren erantzukizunpeko deklarazioa.

Plegu honek eta legeak exigitzen dituen baldintzak bete diren ikusteko unea proposamenak aurkezteko azken eguna izango da.

B GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI ZENBATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK

Gutun-azal honetan sartuko dira irizpide subjektiboak baloratu eta zenbatu ahal izateko derrigorrezko dokumentazioa, plegu honen karatularen I.2 atalean zehazten diren irizpide subjektibo edo ez-automatikoekin erlazioa dutenak

C GUTUN-AZALA: ERA AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

C gutun-azalaren barruan sartuko da proposamen ekonomikoa II. Eranksinean xedatutakoarekin bat eginda.

S. Publizitate gastuak

Pertsona edo enpresa kontratistaren kontura izango dira Aldizkari Ofizialetan, zein egunkarietan edota bestelako hedabideetan lizitazioaren publikazioaren ondorioz sor daitezkeen gastuak, 300 euroko gehienezko zenbatekoa arte.

T. Gaitasuna, derrigorrezko enpresari edo profesional gaikuntza eta kaudimena. (Dokumentazio administratiboa).

T1. Gaitasuna.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

BAZPen ezarritakoaren arabera.

T2. Kaudimen ekonomikoa eta finantziarioa, teknikoa eta profesionala.

1.- Kaudimen ekonomikoa eta finantzieroa honako baliabide baten edo batzuen bidez egiaztau ahalko da:

- Kontratuak aipatzen duen esparruko urteko negozio-bolumena, enpresaburuaren eraketa- edo jarduera-hasieraren eta eskaintzak aurkeztearen daten arabera erabilgarri dauden azken hiruren arteko ekitaldirik onenari dagokionez, kontratuaren urteko batez besteko balioaren behin eta erdi izan beharko da gutxienez, hau da: 19.500,00 euro. Urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistroan onartu eta gordailututako urteko kontuen bidez egiaztatuko da. Enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta hala ez bada, enpresaburua egon behar duen erregistro ofizialean gordailutututakoek. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio-bolumena.

- 100.000,00 euroko erantzukizun profesionaleko aseguruaren egiaztagiria.

2.- Kaudimen tekniko edo profesionala:

- Egindako hornidura nagusien zerrenda, azken hiru urteetan kontratuaren xede izan direnen izaera berekoak edo antzekoak, zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa edo pribatua, adierazita. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako hornidurak; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiriaren bidez, edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez, enpresaburuaren esku dauden eta prestazioa egin dela egiaztatzen duten agiriekin batera; hala badagokio, agintari eskudunak zuzenean jakinaraziko dizkio ziurtagiri horiek kontratazio-organoari.

U. Kontratazio profila

www.Larrabetzu.eus

V. Bestelako zehaztasunak

Pertsona edo enpresa kontratistaren lan-betebeharrak.

Kontratua esleipendunak bere gain hartuko du, SPKLren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta agiri honetan jasotako klausulak eta kontratuaren oinarri diren baldintza teknikoak zorrotz beteta gauzatuko da, Udalaren zuzendaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean. Udalak idatziz zein ahoz gauzatuko ditu ahalmen horiek.

Esleipendunak arduradun bat izendatu beharko du harremanetarako, zerbitzua emateari eta gorabeherei buruzko guztirako. Kontratuaren xede diren zerbitzuak gauzatzen diren bitartean, arduradunak Udalarekin behar diren bilerak egingo ditu kontratua behar bezala garatzen dela bermatzeko.

Kontratu honen xede diren **makinak hornitu, muntatu, instalatu eta martxan jarri**ko ditu kontratistak, entrega bakarrean, **hirurogei (60) eguneko epean**, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita.

Kontratistak entregatu, muntatu eta instalatuko du Kiroldegia izeneko instalazioaren gimnasioan, Larrabetzuko (Bizkaia) Lehendakari Agirre kalean.

Plangintza egokia egiteko, enpresa esleipendunak Udalak izendatutako pertsonarekin koordinatu beharko du entrega, eta ezingo da kontratu honen xede den makineria entregatu aldez aurretik ados egon ezean. Makineria entregatzean, kontratistak makineria muntatu beharko du.

Kontratistak kontratuaren xede diren makinak entregatzeko, muntatzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko epea betetzen ez badu, SPKLren 193. artikuluan xedatutakoaren arabera zehatuko da.

Kontratua exekutatzeko, kontratuaren klausulak bete beharko dira, eta administrazioak kontratistari kontratua interpretatzeko ematen dizkion jarraibideak bete beharko dira.

Kontratistaren kontura izango dira gastuak eta zergak, iragarkiak (Aldizkari Ofizialetan, Egunkari Ofizialetan edo beste edozein komunikabidetan), kontratua eskritura publiko bihurtzeko gastuak, eta horniduraren xede diren ondasunak behar bezala gauzatzeko eta entregatzeko behar diren lizentziak eta baimenak.

Era berean, enpresak kontratua betetzeko egin behar dituen gastu guztiak ordaindu beharko ditu, hala nola gastu orokorrak, finantzarioak, aseguruak, garraioak eta joan-etorriak, materialak, instalazioak, bere ardurapeko langileen ordainsariak, egiaztapen- eta entsegu-gastuak, tasak eta era guztietako zergak, BEZa, jarduera egiteagatik legokiokeen zerga, eta kontratua indarrean dagoen bitartean kontratua gauzatzetik erator daitekeen beste edozein.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Berariaz adierazten da horniduraren xede diren ondasunak entregatzeko eta adierazitako lekura garraiatzeko gastuak kontratistaren kontura izango direla.

Era berean, hirugarrenei eragindako kalte eta galerei erantzuteko komenigarritzat jotzen dituen aseguru-polizak harpidetu beharko ditu, bere kargura.

Lizitatzaileek egiten dituzten eskaintzetan eta esleipen-proposamenetan, ondorio guztietarako, kontzeptu desberdinak zergapetzen dituzten edozein motatako zergak sartzen direla ulertuko da.

Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoan, partida independente gisa adieraziko da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) zenbatekoa.

Kontratuzko oinarrizko obligazioak.

Lan arlokoak: enpresa edo pertsona kontratistaren obligazioak gizarte segurantzan langileak altan eta bajan emateari buruzko arloan, eta dagozkien kategoria profesional eta hitzarmen kolektiboaren araberako soldatak eta kotizazioak ordaintzeari burukoak.

Bestelakoak: zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren medio personal eta materialak atxikitzea.

Kontratuaren beterazpen baldintza bereziak.

Gizarte motakoak: Kontratistak nahitaez bete behar du lan-arloan, gizarte-segurantzari, desgaituak gizarteratzeari eta lan-arriskuen prebentzioari buruz indarrean dagoen araudia, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren bidez onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, bai eta kontratua gauzatzen den bitartean aldarrikatzen direnen arabera ere.

Ordaintzeko modua.

Prezioaren ordainketa BAZPen zehaztutakoaren arabera egingo da eta bankuko transferentzia bidez.

Administrazioak hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko du prezioa, emandako zerbitzuen kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartzen diren egunetik zenbatzen hasita, eta, berandutuz gero, hogeita hamar eguneko epe horretatik aurrera, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina ordaindu

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

beharko dizkio kontratistari, abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako moduan. Operazioetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituena.

Interesak sortzeko epea zenbatzen hasteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, eta, horretarako, hogeita hamar eguneko epea izango du, salgaiak entregatzen diren egunetik zenbatzen hasita.

210. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, Administrazioak onartu egin beharko ditu kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak, hornidura entregatu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

Nolanahi ere, kontratistak ez badu hogeita hamar eguneko epea betetzen faktura elektronikoa dagokion administrazio-erregistroan aurkezteko, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, interesen sortzapena ez da hasiko faktura behar bezala aurkeztu eta hogeita hamar egun igaro arte, eta Administrazioak ez du onespenik eman, hala badagokio, eta dagokion ordainketa egin beharko du.

Pertsona edo enpresa kontratista derrigortua dago formatu elektronikoa erabiltzen. fakturak jaulki eta igortzeko. Faktura elektronikoek Facturae, 3.2 bertsioan ezarritako formatuarekin bat egingo dute, eta ziurtagiri balioztatu batean oinarritutako sinadura elektroniko aurreratu batekin sinatuko dira.

Pertsona edo enpresa kontratistak faktura elektronikoa aurkeztuko du Larrabetzuko udaleko web orrialdean dagoen Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorraren bitartez.

Organo hartzaileari faktura era egokian igorri ahal izateko, adieraziko da:

Kontabilitate publikoaren organo eskuduna: Kontu-hartzailetza.
Kontratazio organoa: Alkatetza
Fakturaren organo hartzailea: Idazkaritza-kontuhartzailetza.

Kontratua suntsiarazteko kausa zehatzak dira:

- Eskaintzan zehaztutako baldintzak eta kontratuaren objektua den prestazioa ez-betetzea edo gaizki betetzea.
- Pleguetan oinarrizkotzat jotako kontratuzko-obligazioen ez-betetzea.

<u>Lanen jabetza.</u>

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Kontratuaren exekuzioan zehar egiten diren ikerketa eta dokumentu guztien jabetza Larrabetzuko Udalarenak izango dira. Horrek kopiatu, publikatu eta hedatu ahal izango ditu osorik edo partzialki, lanen egilea den pertsona edo enpresa esleipendunak aurkaratzeko eskubiderik gabe.

Pertsona edo enpresa esleipendunak ezingo du kontratuaren exekuzioaren ondorioz egindako ikerketa eta dokumentazioaren inongo erabilpen edo hedapenik egin, osorik zein partzialki, zuzenean edo zeharka, Kontratazio organoaren baimen espresurik gabe.

Kontratuaren xedea bada jabetza intelektual edo industrialerako eskubideak babestutako produkturen baten egiletza, enpresa edo pertsona kontratistak eskubide hori Administrazio kontratugileari lagatu beharko dio

Larrabetzun, 2026ko maiatzaren 4a.